

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen 2019ko uztailaren 5eko dekretua, Ingurugiro Gaietarako Ikastegia tokiko erakunde autonomoko zuzendaritza-kontseiluko lehendakaria eta lehendakariordea izendatzeari buruzkoa**

Ingurugiro Gaietarako Ikastegia tokiko erakunde autonomoaren estatutuen 5. artikulua xedatzen duenaren arabera, alkatea da zuzendaritza-kontseiluko lehendakaria, eta, 8. artikulua dioenez, erabat edo zati batean kontseiluko kideren baten esku utzi ahal du kargu hori.

Bestetik, 10. artikulua ahalmena aitortzen dio alkateari kontseiluko kideen artetik lehendakariordea ere izendatzeko, lehendakaria bertan ez bada, kargua hutsik bada edo hura gaixorik bada ere hura ordezkari dezan.

2019ko ekainaren 28ko aparteko bilkuran, talde politikoaren ordezkari izango diren kontseiluko kideak izendatu ditu udalbatzak, estatutuen 5. artikulua dioenarekin bat etorritik.

Horrenbestez, hauxe xedatu dut:

Lehen. Ana Oregi Bastarrika andrea izendatzea Ingurugiro Gaietarako Ikastegia erakunde autonomoaren zuzendaritza-kontseiluko lehendakari.

Bigarrena. Jon Armentia Fructuoso jauna izendatzea Ingurugiro Gaietarako Ikastegia erakunde autonomoaren zuzendaritza-kontseiluko lehendakariorde.

Hirugarrena. Datoren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau; hala ere, ALHAOn eta Udalaren webgunean argitaratuko da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 5ean

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**